

## TOKI ADMINISTRAZIOA

3

## ADMINISTRACIÓN LOCAL

**UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA**

*Urola Kostako Udal Elkarteak osatzen duten udalerrietan etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua arautzen duen ordenantzaren aldaketari behin betiko onarpena.*

Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak, 2022ko martxoaren 24an egindako bilkuran, hasierako onespina eman zion Urola Kostako Udal Elkarteak osatzen duten udalerrietan etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua arautzen duen ordenantzari. Horren ondotik, espedienteak jendaurrean erakusgai jartzeko iragarkia argitaratu zen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, 2022ko martxoaren 31n, 62. zenbakian. Ezarritako epean erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko bilakatu da onarpena. Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak (Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenaren) 70.2 artikulua xedatutakoa betetzeko, eta bertan aurreikusitako ondorioetarako, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN aipatutako ordenantzaren 48. artikulua testu berriaren edukia argitaratzen da.

Gainontzekoan, indarrean dagoen ordenantzaren testua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, 2018ko otsailaren 15ean, 33. zenbakian.

48. artikulua. Garbigune zerbitzuaren erabiltzaileak.

Garbigune zerbitzua erabili ahal izango dute soilik Urola Kostako (Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako) eskualdeko biztanleak.

Merkatariek, eraikuntzako gremio txikiek, industriek eta udal zerbitzuek (brigadak, bulegoak...) ere garbigune zerbitzua erabili ahal izango dute, aurrez Udal Elkarteko zerbitzu teknikoaren baimena jasota, betiere entregatutako materialek ez badituzte gainditzen etxebizitzentzat ezarritako kopuru eta mugak eta Udal Elkarteko eremuko udalerrietan egindako obra edo lanetan sortutako hondakinak badira.

Baimena prekarioan emango da, eta kentzeak ez du kalteordain eskubiderik sortuko.

Garbigune zerbitzua erabiltzeko eskaera egiteko inprimakiak eskura egongo dira Udal Elkartearen webgunean, Udal Elkartearen bulegoetan eta garbiguneetan. Jasotako eskaera eta dokumentuen arabera Udal Elkarteak garbigunean hondakinak uzteko eskaera onartu edo ezetsi egingo du, eskaera erregistratu eta gehienez ere hamar (10) laneguneko epearen barruan.

Salbuespen gisa, Urola Kosta eskualdekoak ez diren erabiltzaileak ere onartu ahal izango dira, betiere Udal Elkarteko zerbitzu teknikoaren baimena jaso eta araudi honetan zehaztutako baldintza guztiak betez gero.

Zarautz, 2022ko maiatzaren 19a.—Lourdes Salsamendi Goñi, Udal Elkarteko lehendakaria. (3342)

**MANCOMUNIDAD UROLA KOSTA**

*Aprobación definitiva de la modificación de la ordenanza reguladora del servicio de recogida y transporte de residuos domésticos en el ámbito de los municipios que integran la Mancomunidad Urola Kosta.*

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladoras de Bases de Régimen Local, y a los efectos en él previstos, se publica en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el texto modificado del artículo 48 de la ordenanza reguladora del servicio de recogida y transporte de residuos domésticos en el ámbito de los municipios que integran la Mancomunidad Urola Kosta, aprobado definitivamente al no haberse producido reclamaciones a la aprobación inicial, que se otorgó en Comisión Ejecutiva de 24 de marzo de 2022 y que se expuso a información pública en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 62, de 31 de marzo de 2022.

En lo restante, la ordenanza, en vigor en su texto original, fue publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 33, de 15 de febrero de 2018.

Artículo 48. Usuarios/as del servicio de garbigune.

El servicio de garbigune sólo podrá ser utilizado por los habitantes de la comarca Urola Kosta (Aia, Getaria, Orio, Zarautz y Zumaiako).

Los comerciantes, pequeños gremios de la construcción e industrias, así como los servicios municipales (brigadas, oficinas, etc.) también podrán utilizar los servicios del garbigune, previa autorización de los servicios técnicos de la Mancomunidad y siempre y cuando los materiales entregados no superen las cantidades y los límites establecidos para las viviendas u hogares y correspondan a obras de los municipios integrantes de la Mancomunidad.

Las autorizaciones se otorgarán en precario y su revocación no dará derecho a indemnización.

Los impresos de solicitud de uso del servicio de garbigune estarán a disposición en la página web, en las oficinas de la Mancomunidad y en los garbigunes. En base a la documentación presentada, la Mancomunidad procederá a la autorización o denegación de la entrada de los residuos, en un plazo máximo de diez (10) días laborables desde el registro de la solicitud.

Como excepción, también podrán aceptarse usuarios/as ajenos/as a esta comarca, siempre que previamente hayan obtenido autorización de los servicios técnicos de la Mancomunidad y cumplan con todos los requisitos establecidos en esta Normativa.

Zarautz, a 19 de mayo de 2022.—La presidenta, Lourdes Salsamendi Goñi. (3342)